


GEU GASTEIZ EUSKALDUNA ELKARTEAREN ESTATUTUAK



JUSTIZIA ETA NEURRI
ADMINISTRATIBO SAILA
Euzko Jaurlaritzak

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
GOBIERNO Vasco

Lehenengo kapitulua

Izena, helburuak, egoitza, lurralde-eremua, iraupena eta demokrazia-arauak

Izena

1. artikulua.- 1.- Elkarte honen izen ofiziala honako hau da: "GEU. Gasteiz euskalduna" elkartea.

2.- Nolanahi ere, zabalkunde-lanetan "Gasteiz euskalduna" hitzen akronimoa den "GEU" hitza erabili ahal izango da "elkartea" hitzaren ondoan. Hau da: GEU elkartea.

Helburuak

2. artikulua.- 1.- GEU elkarteak euskararen erabileraren normalizazioa eta Gasteizen euskaraz bizitzeko aukerak sortu, landu eta lortzea ditu helburu nagusi.

2.- Helburu horiek lortzeko, jarduera hauek egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren:

a) Norberak Gasteizen euskaldun izateko duen borondatetik eta euskaraz bizi nahi izatetik abiatuta, dinamika integratzaile baten baitan euskaldungoa trinkotu, multzo bihurtzera joko du elkarteak; euskararekiko motibazioa, ezagutza eta erabilera lan-ardatz izanik, gizarte-eremu guztietan eragiteari helduko dio, eta, bere zabaltasuna zainduz eta elkartekideen pluraltasuna bermatuz, hala euskal kultura nola euskaldun bizimodua sustatuko ditu, Gasteizko euskal hizkuntza-komunitatea, euskal hiztuna eta euskara bera indartzearen.

b) Euskara oinarri duen diskurtso integratzailea gizarteratuz, sentsibilizazio-kanpainak, jaialdiak, kultur ekitaldiak, lehiaketak, topaketak, gazte eta helduentzako aisialdirako ekintzak antolatuko ditu, euskarazko hedabideak plazaratu, hizkuntza-zerbitzuak eskaini, beste elkarte edo entitateekin hitzarmenak bultzatu eta sinatu, eta asmo horiek lortzeko behar diren ikastaldi, eskola, hitzaldi, ikuskizun, elkarrizketa zein ahal diren baliabide guztiak jarriko ditu.

3.- GEU elkarteak Gasteizko euskaldun guztien biltoki eta erreferentziatzko elkargune izan nahi du.

Xabier Rúa


4.- Goian azaldutako jarduerak gorabehera, GEU elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:



a) Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.



b) Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.



c) Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

Egoitza

3. artikulua.- 1.- GEU elkartearen egoitza helbide honetan egongo da: Gasteiz hiriko Pedro Asua kalean dagoen zenbakidun gabeko etxeko 3. solairuko 89., 90. eta 91. bulegoetan.

2.- GEU elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Euskal Autonomia Erkidegoan, batzar orokorrak hala erabakitzen badu.

Xubia Ruo

Lurralde-eremua

4. artikulua.- GEU elkarteak nagusiki Gasteizen gauzatuko ditu bere zereginak.

Handwritten signature

Iraupena eta demokrazia-arauak

5. artikulua.- 1.- GEU elkarteak iraunkorra izateko eratu da.

2.- 10. artikuluan esaten den bezala ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

3.- GEU elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatuto-xedapenak eta erabakiak.

Bigarren kapitulua
Aginte- eta administrazio-organoak



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRATZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACION PÚBLICA

6. artikulua.- GEU elkartearen agintea eta administrazioa kide anitzeko **organo** hauen esku egongo da:

- a) Bazkideen batzar orokorra izango da organo gorena.
- b) Zuzendaritza-batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoko iraunkorra.

Bazkideen batzar orokorra

7. artikulua.- 1.- GEU elkarteko batzar orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

2.- Batzar orokorrak honako ahalmen hauek ditu:

- a) Jarduera-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza-batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkartea desegitea.
- f) Lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, batzar orokorrak aginte-organismoari eskuordetu diezaioke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.

Xabier Ruiz

k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.

l) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.



JUSTIZIA ETANIKEN
ADMINISTRATZIOA
Euzko Legebiltzaria

8. artikulua.- Batzar orokorrak ohiko bilkurak eta ezohiko bilkurak egingo ditu.

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
ADMINISTRACIÓN GENERAL
Euzko Legebiltzaria

9. artikulua.- Batzar orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura: lehenengo hiruhilekoan izango da, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.- 1.- Batzar orokorra zuzendaritza-batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen % 20k eskatu duelako.

2.- Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolanahi ere, honako gai hauek aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:

a) Estatutuak aldatzeko.

b) Elkartea desegiteko.

11. artikulua.- 1.- Batzar orokorra biltzeko deialdia idatziz egin behar da, eta bilkuraren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin.

2.- Deialdia egiten denetik gutxienez hamabost (15) egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tartea utzi beharko da.

3.- Batzar orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- 1.- Batzar orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean.

2.- Alabaina, bertaratuen edo ordezkatuena gehiengo kualifikatua beharko da (baiezko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago izatea, alegia) erabaki hauek hartzeko:

a) Elkartea desegitea.

Xabier Ruiz

b) Estatutuak aldatzea.

c) Ondasunak erabili edo besterentzea.

d) Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

13. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideren esku utzi dezakete batzar orokorretara joateko ordezkaritza. Ordezkaritza hori idatziz eskuordetu beharko da, eta batzarreko idazkariari eman bilera baino gutxienez hogeita lau (24) ordu lehenago. Elkartearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezakete.

Zuzendaritza-batzordea

14. artikulua.- 1.- Zuzendaritza-batzordea da batzar orokorraren xedapen eta zuzentarauci jarraikiz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa.

2.- Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza-organoa.

3.- Zuzendaritza-batzordea osatuko dutenak honako hauek izango dira:

a) Lehendakaria

a) Lehendakariordea

b) Idazkaria

c) Diruzaina

d) Batzordekideak

- Gutxienez batzordekide bat eta gehienez lau izango dira

e) Koordinatzailea

4.- Gutxienez urtean hiru aldiz bildu beharko dute, eta elkartearen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den guztietan.

15. artikulua.- Zuzendaritza-batzordeko kideren bat bilera horietara bost (5) aldiz jarraian, edo, tarteka zazpi (7) aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. artikulua.- 1.- Batzar orokorrak hautatuko ditu zuzendaritza-batzordeko kargudunak.



JUSTIZIA, ENERGI
AURERAKUNTZA
LEGIEN

DEPARTAMENTU DE JUSTITIA
Y ENERGIA Y AURERAKUNTZA

Xabier

[Handwritten signature]

2.- Kargu horiek bi urterako izendatuko dira batzordeak berariaz baliogabetu ezean.

3.- Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.

17. artikulua.- Zuzendaritza-batzordeko kide izateko, ezinbestean baldintza hauek bete beharko dira:

a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.

b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.

c) Erakundeko bazkidea izatea.

18. artikulua.- 1.- Zuzendaritza-batzordeko kide izateko, lehendabizi, batzar orokorrak izangaia hautatu behar du eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

2.- Zuzendaritza-batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake batzar orokorrak.

19. artikulua.- 1.- Zuzendaritza-batzordeko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

a) Aginte aldia bukatzen denean.

b) Dimititzen baldin badute.

c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.

d) Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, batzar orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.

e) Hiltzen baldin badira.

2.- a) idatz-zatian agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoiak, zuzendaritza-batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

3.- b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena baldin bada arrazoiak, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du zuzendaritza-




JUSTIZIA ETA FETTER
ADMINISTRATZIOAK
Euzko Legebiltzaria


DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACION PUBLICA
Euzko Legebiltzaria

Xabier Ruiz

batzordeak, eta batzar orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.



4.- Organo honen osaceran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen erregistroari.



20. artikulua.- Honako hauek dira zuzendaritza-batzordearen zereginak:

a) GEU elkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, batzar orokorraren jarraibideekin bat etorriz eta haren kontrolpean.

b) GEU elkarteak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.

c) GEU elkartearen gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria batzar orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan.

d) Batzar orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.

e) GEU elkarteko bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.

f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkartearen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorriz.

g) Batzar orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

21. artikulua.- 1.- Zuzendaritza-batzordearen bilkurak lehendakariak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira.

2.- Bilkurako buru lehendakaria izango da, ez balego, lehendakariordea; eta horien faltan, batzordekide zaharrena.

3.- Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

4.- Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

Xabier Ruiz

Kide bakarreko organoak Lehendakaria



JUSTIZIA ETA HEZKUNTZA
ADMINISTRATZIO SAIALA
ERREKURTEA
JUSTITIA
ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Y FISCALÍA

22. artikulua.- Lehendakariak beregain hartuko du elkartearen legezko ordezkaritza, eta zuzendaritza-batzordeak eta batzar orokorrak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako lehendakaria izango da.

23. artikulua.- Lehendakariak honako hauek denak egiteko ahalmena izango du:

a) Zuzendaritza-batzordearen eta batzar orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta botoberdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.

b) GEU elkartearen ekintzen egitasmoa zuzendaritza-batzordeari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.

c) Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.

d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran zuzendaritza-batzordeari horren berri ematea.

e) Batzar orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

Lehendakariordea

24. artikulua.- Lehendakariordeak lehendakariari lagunduko dio, eta lehendakariak aldi batean bere kargua bete ezin badu, lehendakariordeak ordezkatu du. Era berean, lehendakariak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.


Idazkaria

25. artikulua.- Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta bazkideen erregistro-liburua zaintzea, eta akta-liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea. Era berean, elkartean arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkarteko liburuaren eta artxiboen edukia egiaztatuz eta zuzendaritza-batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketen berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.

Xabier Ruiz

18/10/2018

Diruzaina



26. artikulua.- Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak zuzendaritza-batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek batzar orokorrari, hark onartu ditzan.

Koordinatzailea

27. artikulua.- Koordinatzaileak honako ardura hauek izango ditu bere gain:


- a) Zuzendaritza-batzordearen eta elkartearen baitan eratutako azpi batzorde zein lan-talde desberdinen arteko koordinazioa bermatu eta indartzea.
- b) GEU elkartearen funtzionamenduaren eta egunerokotasuneko jardunaren ardura izatea.
- c) GEU elkartearen baliabide material eta pertsonalen ardura izatea.
- d) Azpi batzordeetan hobetsitako elkarte barneko zein kanporako ekimenak tajuz gauzatzen direla ziurtatzea.
- e) GEU elkartearen ordezkari eta bozeramale izatea.
- f) GEU elkartearen kanpo eta barne harremanak landu eta sustatzea.
- g) Zuzendaritza-batzordea uneoro informatuta izatea.
- f) Zuzendaritza-batzordeak egoki deritzon, bizkarrera diezaizkiokeen bestelako egitekoak.

Xabier Ruiz

Batzordekideak

28. artikulua.- Zuzendaritza-batzordeko gainontzeko kideak ez bezala, ez dira kide bakarreko organoak. Behar beste batzordekide egon litezke, zuzendaritza-batzordeak lanerako behar eta erabaki beste.

Hirugarren kapitulua Bazkideak



JUSTIZIA ETA LEKURI
ADMINISTRATZIO SAIA
Euzko Legebiltzaria

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Euzko Legebiltzaria

Onartuak izateko baldintza eta prozedurak, eta bazkide motak

29. artikulua.- Bazkide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten **pertsona** guztiak izan daitezke GEU elkarteko bazkide:

a) Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea.

b) Pertsona juridikoak izanik, organo eskudunak baliotasunez hartutako erabakiaren kopia aurkeztu beharko dute eta, bertan, elkartea eratu nahi dutela eta ordezkari gisa norik jardungo duen adierazi beharko dute.

30. artikulua.- 1.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea, bi bazkideren babesarekin eta lehendakariari zuzenduta.

2.- Lehendakariak eskaeraren berri emango dio zuzendaritza-batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez.

3.- Erabakiaren aurkako gorako errekurtsioa jar dakioko batzar orokorrari.

Xabier Ruiz

Bazkideen eskubideak eta betebeharrak

31. artikulua.- Bazkide guztiek honako hauek denak egiteko eskubidea dute:

a) Elkarteei buruzko Legearen edo estatuto hauen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 eguneko epean.

b) GEU elkartearen aginte- eta administrazio-organoen osakerari, kontu-egoerari eta jarduerari buruzko informazioa jasotzea.

c) GEU elkarteko beste bazkideen nortasuna, elkartearen diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkartearen ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.

d) Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.

Xabier Ruiz

e) GEU elkartearen estatutu hauen arabera, zuzendaritza-organismoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.

f) Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta GEU elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.

g) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organismoek eskakizunak eta kexak aurkeztea.

h) Talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (elkartearen egoitza, liburutegia...).

i) Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.

j) Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

32. artikulua.- Bazkideen betebeharrak hauek dira:

a) GEU elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.

b) Kuotak, derramak eta estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.

c) Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.

d) Elkarteko zuzendaritza-organismoek baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.

Bazkide izateari uztea

33. artikulua.- Bazkide izateari uzteko arrazoiak honakoak izango dira:

a) Hiltzea (edo, pertsona juridikoen kasuan, desagitea).

b) Bazkidea bere borondatez joatea.

c) Arrazoi hauengatik, bazkide izateari uzteko zigorra jasotzea: estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta batzar orokorrak edo Zuzendaritza-batzordeak

baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausteagatik.



Zigor-arauak

34. artikulua.- 1.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte estatutuak edo batzar orokorrak nahiz zuzendaritza-batzordeak hartutako erabakiak, zuzendaritza-batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

2.- Hamabost (15) egunetik hilabetera eskubideak kentzetik hasi eta elkartetik betiko kanporatzera arteko zigorra ezar daiteke, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

3.- Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeke ikerketa egin dadila erabaki dezake lehendakariak.

4.- Ikerketaren instrukziogilea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio zuzendaritza-batzordeari hartu beharreko neurriak.

5.- Zigorra ezartzeko ahalmena zuzendaritza-batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio.

6.- Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsua jarri ahalko zaio batzar orokorrari.

35. artikulua.- Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta batzar orokorrak edo zuzendaritza-batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, lehendakariak idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak jarduerak artxibatzeke agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor-espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.

36. artikulua.- 1.- Elkartetik kanporatzeko zigor-espedientea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idazki bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteke, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost (15) eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, zuzendaritza-batzordearen lehenengo billkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espedienteko instrukziogilea izan den idazkariak.

Xabier Ruiz

2.- Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo ezohiko batzar orokorrean errekurtsoa aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru (3) hilabeteren barruan batzar horretarako deirik egiten ez bada, errekurtsoa ebazteko batzarrerako deia egin beharko da. Bitartean, zuzendaritza-batzordeak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta zuzendaritza-batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA ETA ENFERMERIA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ASISTENCIA PUBLICA
Euzko Legebiltzariaren
Batzar Orokorra

3.- Batzar orokorrari kanporatzeko espedientea aurkeztuz gero, idazkariak espedientearen laburpena egingo du, zuzendaritza-batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza batzar orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

37. artikulua.- Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo estatutuen aurkakoa bada.

38. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

Xabier Ruiz

Laugarren kapitulua Sortze-ondarea eta aurrekontu-arauak

39. artikulua.- GEU elkarteak ez du sorrera ondasunik.

40. artikulua.- 1.- GEU elkarteak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:

- a) Sarrera-kuotak.
- b) Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
- c) Elkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- d) Zuzendaritza-batzordeak estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

Xabier Ruiz

2.- Elkartea eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

3.- Jarduera ekonomikoak gauzatuz (zerbitzuak ematea barne) elkarteak lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere

ezingo dira bazkideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

LEGI-BOZKAZA
GOBIERNO VASCO

JUSTITIA ETA ENDEI
ADMINISTRATIBO SALA
Euzko Legebiltzara

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

Bosgarren kapitulua **Estatutuak aldatzea**

41. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza-batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori zuzendaritza-batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

42. artikulua.- 1.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, lehendakariak zuzendaritza-batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du.

2.- Zuzendaritza-batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lan-taldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

3.- Egitasmoa onartuz gero, zuzendaritza-batzordeak hurrengo batzar orokorreko gaizerrendan sartzea erabakiko du edo, bestela, horretarako propio batzar orokor baterako deia egitea.

43. artikulua.- 1.- Batzarrerako deiarekin batera, estatutuetako aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak idazkaritzan aurkeztu ahal izateko.

2.- Zuzenketa horiek batzar orokorrari helaraziko zaizkio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira idazkaritzan.


3.- Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute.

4.- Zuzenketak bozkatu ostean, batzar orokorrak estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkarteen erregistro orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

Xabier Ruiz



Seigarren kapitulua
Elkartea desegitea eta elkarte-ondarearen zertarakoa



44. artikulua.- GEU elkarte arrazoi hauengatik desegingo da:

a) Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.

b) Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.

c) Beste elkarte batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.

d) Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.

e) Epai irmo batek elkarte desegitea agintzen duelako.

f) Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.

45. artikulua.- 1.- GEU elkarte deseginez gero, desegiteko erabakia hartu duen ezohiko batzar orokorrak kitapen-batzordea izendatuko du.

2.- Kitapen-batzordea zuzendaritza-batzordeko bi kidek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

3.- Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko erakunde bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenen bati eman beharko zaio.

Xabier Ruiz

Azken xedapenak

Lehena.- Estatutu hauek garatzeko asmoz, batzar orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu estatutuetako aginduak aldatuko.

Bigarrena.- 1992ko ekainaren 15ean eratu eta lasterrera, 1992ko ekainaren 30ean hain zuzen, Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Fundazioen Erregistroan AS/A/03405/1992 erregistro-zenbakia hartutako "GEU. Gasteiz euskalduna" elkartearen estatutu hauek aldatu egin berri dira, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoen arabera, eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritz.



Hirugarrena.- GEU elkarteak honako arau hauen arabera zuzenduko du bere jarduna:

- a) Goian aipaturiko Legeen arabera.
- b) Estatutu hauen arabera, legearen aurkakoak ez badira.
- c) GEU elkartearen gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakien arabera, Legeen edota estatutuen aurkakoak ez badira.
- d) Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenen arabera. Xedapen horiek osagarriak izango dira.

Laugarrena.- Honako Estatuto hauek GEU Gasteiz euskalduna elkarteak 2012ko urtarrilaren 31n egindako batzar orokorrean onartuak izan dira.

Gasteizen, 2012ko urtarrilaren 31n.

Xabier Ruiz

AS/A103405/1992

Estatutu hauek onartu dira, Eusko Autonomia Erkidegoko Elkartearen Errolda Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuan eta horiek ber datorren gainontzeko arauetan zehaztutako ondorioetarako.	Visados los presentes Estatutos... 29 de julio, por el que... del País Vasco y demás normativa... En Vitoria, 10 de mayo de 2012.
ERROLDAKO ARDURADUNA	EL/LA ENCARGADO/A DEL REGISTRO

